# Xedapen Orokorrak

## OSASUN SAILA

## Zk-5622

248/1996 DEKRETUA, azaroaren 5ekoa, Osasun zentru, zerbitzu eta establezimenduak irekitzeko, ihardunean jartzeko eta aldatzeko baimenei buruzko Dekretua aldatzen duena.

Osasun zentru, zerbitzu eta establezimenduak irekitzeko, ihardunean jartzeko eta aldatzeko baimenei buruzko urriaren 11ko 396/1994 Dekretuaren bigarren atalean, dekretu horren ondorioetarako osasun establezimendutzat zeintzuk jotzen diren zehazten da.

Batez ere, beren interes sanitario eta sozialarengatik sartu ziren Osasun zentru, zerbitzu eta establezimendu horiek zerrendan, eta berauen arauketaren helburua koordinaketa eta kontrola behar bezala egitea zen, populazioaren osasun maila hobetzeko, hori baita sanitateko sektore publiko zein pribatuaren jardueraren xedea.

Ildo horretatik, arlo horretan izandako esperientziak erakutsi digunez, komenigarria da ekipo mugikorrak (anbulantziak eta bestelako ekipoak) eta organo, ehun, hezur, odol eta gainontzeko gorputz-fluidoetako bankuak biltzen zituen epigrafea atal desberdinetan bereiztea; izan ere, horien izaera guztiz diferentea baita. Gainera, Dekretuan ez ziren katalogantzen gaur egun dauden zerbitzu batzuk, sanitatearen arloan garatu eta aplikatutako teknologiaren etengabeko bilakaeraren ondorio direnak; besteak beste, banku horietan bil daitezkeen gaiak eskuratzeko eta ezartzeko zentruak.

Halaber, beste zenbait establezimendu ere ez ziren jasotzen, optikak eta kabinete ortopedikoak kasu, nahiz eta horien jarduera sanitarioa izan zalantzarik gabe, erabiltzen dituzten teknikek eta horien erabileraren helburuek erakusten duten bezala.

Establezimendu horiek erabiltzen dituen jendearen kopuruari erreparatuz gero, begibistakoa da osasunaren arloan duten eragina. Beraz, komenigarri ikusten da Osasun zentru, zerbitzu eta establezimenduen katalogo berrian sartzea eta urriaren 11ko 396/1994 Dekretuan zehazten den kontrol-mekanismoa zentru horiek betetzen dituzten funtzioen markora hedatzea, bertan burutzen diren jarduera profesionalak zuzen bete daitezen.

Bestalde, salbuespen-erregimenaren barruan sartu dira albaitaritzako botikak saltzeko zentroak eta analisi klinikoak egiteko laborategiek, optikek eta kabinete ortopedikoek farmazi bulegoetan dituzten sekzioak. Horrela, trataera homogeneoa ematen zaie beren izaeragatik, oro har, ordenamendu farmazeutikoa delakoaren barruan sartzen diren zentroei. Are gehiago kontutan hartuta horien baimenak eta kontrol mekanismoak

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## N°-5622

DECRETO 248/1996, de 5 de noviembre, por el que se modifica el Decreto de autorizaciones de apertura, funcionamiento y modificación de centros, servicios y establecimientos sanitarios.

El Decreto 396/1994, de 11 de octubre, por el que se regulan las autorizaciones de apertura, funcionamiento y modificación de centros, servicios y establecimientos sanitarios recoge en su artículo segundo el catálogo de aquellos centros que a los efectos del citado Decreto tienen la consideración de establecimientos sanitarios.

La inclusión de los centros, servicios y establecimientos sanitarios enumerados respondían a un indudable interés sanitario y social, teniendo su regulación como objetivo primordial una correcta coordinación y control de los mismos, en aras a la consecución de un mayor nivel de salud para toda la población, que es, en fin, a lo que debe ir encaminada la actividad del sector sanitario, tanto público como privado.

Al respecto, la experiencia acumulada en este campo permite apreciar por un lado, la necesidad de desglosar el epígrafe donde se reunían los equipos móviles (ambulancias y otros equipos) y los bancos de órganos, tejidos, huesos, sangre y otros fluidos corporales en apartados diferenciados, dada la dispar naturaleza que conforman los mismos y por otro que no aparecen catalogados determinados servicios cuya existencia actual son producto de la continua evolución de la tecnología desarrollada y aplicada en el ámbito sanitario, como es el caso de los centros de obtención e implantación de aquellas sustancias susceptibles de ser incorporadas a los citados bancos.

Asimismo, tampoco se recogían ciertos establecimientos como las Ópticas y los Gabinetes Ortopédicos, en los cuales se desarrollan actividades de indudable naturaleza sanitaria reflejada tanto en las técnicas utilizadas como en la finalidad con la que se emplean.

En este sentido, su previsible incidencia en el campo de la salud dado el elevado número de usuarios de dichos establecimientos, aconsejan su inclusión en el nuevo catálogo de centros, servicios y establecimientos sanitarios, posibilitando con ello extender en el marco de sus funciones -en orden a un correcto ejercicio de las actividades profesionales que en ellos se realizan- el mecanismo de control articulado en el Decreto 396/1994, de 11 de octubre.

Por otra parte, en lo concerniente al régimen de exclusiones se recoge a los centros de dispensación de medicamentos veterinarios y las secciones respectivas de Laboratorios de análisis clínicos, Ópticas y Gabinetes Ortopédicos en oficinas de farmacia proporcionando con ello un tratamiento homogéneo a aquellos centros que por su naturaleza quedan englobados en la denominada, genéricamente, ordenación farmacéutica, máxime

berariazko legerian jasotzen direla.

Azkenik, 396/1994 Dekretuan ezarritako egokitzapen-epea iraungita dagoenez, beste epe bat ezartzen da Dekretu horretan zerrendatutako Osasun zentru, zerbitzu eta establezimenduentzat; hain zuzen ere, berau garatzeko xedapenetan zehazten dena.

Ondorioz, ikututako entitate korporatiboei entzun ondoren, Osasun sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko azaroaren 5ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe:

XEDATU DUT:

*Atal bakarra*.– Urriaren 11ko 396/1994 Dekretuaren 2. atalaren testua hau izango da:

«*2. atala*.– 1.– Dekretu honen ondorioetarako hauek joko dira osasun zentru, zerbitzu eta establezimenduzat:

a) Ospitaleak

b) Laguntza espezializaturako zentroak

c) Osasun zentroak

d) Anbulantziak eta gainontzeko ekipo mugikorrak

e) Organo, ehun, hezur, odol eta gainontzeko gorputz–fluidoetako bankuak eta gai horiek eskuratzeko eta ezartzeko zentroak.

f) Balnearioak.

g) Analisi klinikoetako laborategiak.

h) Sorospen-kontsultategiak

i) Optikak

j) Kabinete ortopedikoak

2.– Honako hauek Dekretu honetatik kanpo uzten dira:

a) Botikak saltzen eta banatzen dituzten establezimendu eta zerbitzu farmazeutikoak, horiek Euskal Autonomi Elkarteko Ordenazio Farmazeutikoari buruz ekainaren 17an emandako Legean eta berau garatzeko emandako araudian xedatutakoaren arabera arautuko baitira.

Halaber, analisi klinikoak egiteko laborategiek, optikek eta kabinete ortopedikoek farmazia bulegoetan dituzten sekzioak ere kanpo geratuko dira, horiek berariazko legeriaren bitartez arautzen baitira.

b) Albaitaritzako botikak saltzen dituzten zentroak, horiek berariazko legeriaren bitartez arautzen baitira.

c) Drogak, produktu estupefazienteak, psikotropikoak eta antzekoak egiten dituzten laborategiak, zentroak eta establezimenduak; espezialitate farmazeutikoak egin eta horien lehengaiak tratatzen dituztenak eta medikuntzako tresna terapeutiko eta zuzentzaileak egiten dituztenak.

teniendo en cuenta que los mismos quedan sujetos a autorizaciones y mecanismos de control establecidos en su legislación específica.

Finalmente, dado que el plazo de adecuación establecido en el Decreto 396/1994, ha sido superado, se prevé como plazo de adecuación para los nuevos centros, servicios y establecimientos sanitarios que se incluyen en la relación enumerada en el precitado Decreto, la que establezcan sus disposiciones de desarrollo.

En su virtud, oídas las entidades Corporativas afectadas y a propuesta del Consejero de Sanidad, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 5 de noviembre de 1996,

DISPONGO:

*Artículo único*.– El artículo 2 del Decreto 396/1994, de 11 de octubre, quedará redactado de la siguiente forma:

«*Artículo 2*.– 1.– Se consideran , a los efectos de este Decreto, centros, servicios y establecimientos sanitarios:

a) Los Hospitales.

b) Los centros de atención especializada.

c) Los centros de salud.

d) Ambulancias y otros equipos móviles.

e) Los centros de obtención, implantación y los bancos de órganos, tejidos, huesos, sangre y otros fluidos corporales.

f) Los balnearios.

g) Los laboratorios de análisis clínicos.

h) Las consultas asistenciales.

i) Las Ópticas.

j) Los Gabinetes Ortopédicos.

2.– Quedan excluidos del presente Decreto:

a) Los establecimientos y servicios de atención farmacéutica, tanto de dispensación como de distribución, que se regirán por lo dispuesto en la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en su normativa de desarrollo.

Asimismo, las secciones de los laboratorios de análisis clínicos. ópticas y gabinetes ortopédicos en oficinas de farmacia que se regularán por su legislación específica.

b) Los Centros de dispensación de medicamentos veterinarios que se regirán por su legislación específica.

c) Los laboratorios, centros y establecimientos de elaboración de drogas, productos estupefacientes, psicotrópicos y similares, así como de especialidades farmacéuticas y sus materias primas y de material instrumental médico, terapéutico o correctivo.»

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Dekretu honetako zerrendan jasotzen diren zentruen, zerbitzuen eta establezimenduen funtzionamendua egokitzeko epeak berau garatzeko aginduetan xedatutakoari egokituko zaizkio.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Osasun sailburuari eskumena ematen zaio Dekretu hau gauzatzeko eta garatzeko eman beharreko xedapenak emateko.

*Bigarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko azaroaren 5ean.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Osasun sailburua,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### OSASUN SAILA
***(Osakidetza)***

**Zk-5623**

1056/1996 ERABAKIA, urriaren 22koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, Bizkaiko Barruti Zuzendaritzako transplanteetarako lurralde koordinatzailearen lanpostua betetzeko Ignacio López Luperena jauna izendatzen duena.

Bizkaiko Barruti Zuzendaritzako transplanteetarako lurralde koordinatzailearen lanpostua aukerako izendapenez betetzeko deialdia ikusi da. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen uztailaren 23ko 835/1996 Erabakiaren bitartez egin zen eta EHAAko 176 zenbakian argitaratu zen, 1996ko irailaren 12koan alegia.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak agertu dituen agiriak aztertu dira, bere baldintza profesionalak curriculum vitae-n jasotako merezimenduen arabera baloratuz.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Ignacio López Luperena jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko dohain egokiak dituela ikusi da.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Los plazos de adecuación de funcionamiento para los nuevos centros, servicios y establecimientos incluidos en la relación que se enumera en el presente Decreto, se ajustarán a lo dispuesto en sus ordenes de desarrollo.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero de Sanidad para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 5 de noviembre de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

EL Consejero de Sanidad,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD
***(Servicio vasco de salud)***

**N°-5623**

RESOLUCIÓN 1056/1996, de 22 de octubre, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se nombra a D. Ignacio López Luperena para desempeñar el puesto de Coordinador Territorial de Transplantes de la Dirección de Área de Bizkaia.

Vista la convocatoria para cubrir, por el sistema de libre designación, el puesto de Coordinador/a Territorial de Transplantes de la Dirección de Área de Bizkaia, publicada en el BOPV n.º 176, de 12 de septiembre de 1996, mediante Resolución n.º 835/1996, de 23 de julio, de esta Dirección General.

Resultando que finalizado el plazo de presentación de solicitudes, ha sido estudiada la documentación presentada por el único aspirante al desempeño del puesto de que se trata, habiéndose valorado sus condiciones profesionales conforme a los méritos aportados en el «Curriculum Vitae».

Considerando que a la vista de la documentación presentada, D. Ignacio López Luperena se adecua al perfil del puesto convocado y posee la cualificación idónea para el desempeño del mismo.